

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure produktua aurrera ateratzeko, jendeari ezagutarazteko, publizitatea eginez. Ondo etorriko litzaiguke, mediku edo zientzialari batek, gure produktua ikustea, berak erabiltzea ikusteko erabilgarria dela eta horrela telebistan edo irratian hitz egitea produktuari buruz. Honekin lortuko genukeena, gure produktua zabaltzea izango zen. Mediku batek argitaratzen baldin badu, jendeari konfiantza gehiago ematen dio eta produktuari aukera bat emango liokete.



Honetaz gain, ahoz ahoko publizitatea oso baliagarria izango litzateke. Jendea erosten joango zelako eta haien gustokoa baldin bada edo erabilgarria iruditzen bazaie, haien familia eta lagunei gomendatuko liokete gure produktua. Gure ustez, publizitate metodo honek edozein publizitate kartela baino askoz potenteagoa da. Pertsonen artean hitz egiteak askoz ere indar gehiago duelako. Beraz, gure helburuetako bat, bezeroengan inpresio ona ematea da, produktua jende gehiagori gomendatzeko.

